

# MORSA ARRANTZAN

Uda arratsalde biguna, an Groenlandi'ko iparraldean. Urriñera, blei-blei dago itxasoa, orio zurrunbil antzera: aizea, barriz, oso me, argizai motela be itzaltzeko lain ez dala. Ain ezti, naro ta baketsu guztia.

Ezker-eskumako zabaldi eder ontan ez zan iñor agiri, Ibik eta onen aita Mariark izan ezik, euren *kajak* edo zurezko ontzitxoetan jarrita. Ibik'en ontzia etzan luze ta zabal aitarena beste, txikiago baño; alan be, ederto zirikatu, eraso ta atrapa leikezan bertatik izotz-mokor artean ebiltzan fokak.

Arrats epel aretan, atseden artzen egoan Mariark, onu ta aolku egokiak semeari emonaz. Ba-etorkion etorri be, ontzitxoan sartuta arrainizan ikasteko garaia.

Ibik gaztea, bere burua onen azia ikusirik ,ezin eban pozak artu; batez be, itxaso gaizto areik zear aitak eroan nai ebalako, arrisku-lagun.

—Gaur, bai, aita ta biok joango gaituk arrantzura-iñotson arranpalo bere anaitxo kaskarrenari, ontziak egozan lekura joiazan bitartean.

Orain ezarrita dago, ontzitxo barruan geldi; ontziak ikara barik dirau ur ganean. Eguzki izpiak zutzut jausten jakoz begietara; augaitik erdi zorabiatua aurkitzen dala esan bear: ez dau ezer ikusten. Zelako gozotasuna.

Bat-batez, ixilla eten. Zer da? Zerbaiten otsa, murrusika lez, belarrietara jake. Begiak zolitu ta morsa izugarria dakuse, ur-ur eurakandik.

Aitak egiñik ez eban Ibik-ek ezer galdu: arpoiak trebe ta adoretsu gertau, piztiaren bizkar jarteko lemari bira eragin, ur-zartadak busti ta kalte egin arren ,onen ardura bape

bazik. Bezalako batean, morsagandi kuna 'ta lez egoala, sutondu zan arpoia piztiari jaurtzeko. Baña orek, aurreraxe nor eukon ikusirik, bira egin eban ausarditsu. Gorputz erdia atatik jarriaz ... jagi zan, arrainari arpegi emoteko; alan be, gizonaren ontzia bularrean urreratu jakolako, ezin eutsan errez oratu. Bota eutsan Mariark'ek, arrez buruen zangar arpoia. Baña zartez ta gordin bira egin ebalako, ontziaren atzealdean egozan arrantzu-tresnak uretara jausi jakozan.

Osoan eusan eutsan arpoiak morsari, baiña askotxo durduritu be: garratzemontar zorrotza, sakonkiro josi jakon gorputz zail koipetsuan. Zauritxuak, ostera, seminiñetan ipiñi eban. Eta arren ikera bildurgarriak, sare ta tresna artean katigu.

Oñaze-suak geroago ta geiago ixetuen eban ezkero, Mariark'en ontziari gogotik eraso eutsan, baten be branka aldetik, a tangalaka jarteraño, arrantzaleak aspira jaurtzeko adu txarrean. Ain epokera latz larrian, zirkiñik pitiñena egiten be etzan azartzen, morsa gaiztoak oratu ez egion; onek bernazurren eragiñik ariñena ikustea naiko eban ori egiteko. Mariark esku utsik aurkitzen zan, ez eukon beste izkillurik, bere *kajak* baño ta au erdi zatituta.

Ibik, aita orela ikustean, bildurrak iñausita egoan geroa. Lemari gogor oratu ta aitagana elda nai izan eban ari al bestean laguntzeko. Baña aitak oiakorik ez egiteko ziñautson, aidik alde egiala kiñuka adierazoaz. Ibik'ek, alan be, ez eutsan ezer entzun. Bere aita bakarrik gogotan ... ebillan ... malkoa ..., barriz, etzan gauza ... egiteko, ur azpira barik jagoteko jantziak naiko ebazan arren. Orela, aitagana zan Ibik, bere ontzia morsari ipoika galanta emonik: zaplada onek, ostera, Mariark nun egoan esagun-azo eutsan, baita ... laster ... be.

Itsaso-ertetik, bat-batera, garrasi bi etozan, oso zarkorrak, alaran autrera. Bere ama ta aitaitarenak ziran. Arrain gaizto ta gizonaren arteko burruka likiña ikusita be, ezin eutsoen ... laguntzarik eskiñi. Ulusari eritxon ogarte bakarrean egozan, eta emen etzan besterik Mariark eta Ibik'en ontzitxoak etozu erlerro. Keitzeak zartak, aitaitak, ez eukon ezer, arrañetara urteteko zarregi zalaka. Auregaitik ... ezire onen saminkiro.

Igitu eban burua Ibik'ek, lurrekoak ikusi zeikiran bestean; nai izakoa bai-zan bezelako aitari laguntasun pizkat emotea. Alan be, lenengotik sartu zan, eta argiro, morsa ikaragarriak zelan josi ebazan aitaren lepazurrean bere betagin zorrotzak, eta bularretik atara. Oiurik be ez eban erruakarriak egin; ozta-oztan, ai bat jaurti, begi leiartsuak ikuskai zoro bakanen baiturean ebazala. Min-oñazea bera be etzan, antxaki, luzarokoa izan.

Auxe zan Ibik'ek ikusi eban guztia.

Ur ganera ziran apurka arrantzuko tresna eodakiñak, morsa ... bandik nora ebillen itxarteu ebenak. Baña laster konturatu zan Ibik ez jakola errez ari jarraitzea, ta aketzaz gatxago ari oratzea bera be ... katurik, oso zabar egoan-eta.

Ara ta ona, olatuen bizkar gain ebiltzala begitandu jakon ontzi arrainaren zatalak, aruntzago lur... err...



ama ta aitaita negar samiñez lertzen ziran bitartean.

Benetan negar garratza. Arrantzutara joan ziranak gizon bi zirala esan zeikean, ... urkar ta bularrean bai-emon eragiten arraunari aitaren alboan. Baña oindiño urte gitxiko zan eta, ai! amezurrez maillan jazarria zeutik. Zoritxarrez ezta besterik adiok amezurts biurtu dauan ... ain neigabetu baño.

Isil ta minbera, urten zan uretatik. Oi, zelako ixila! Ikaragarria benetan, gabai-garrasi ta Ibik'en arraun klask!, klask!, osortzak nekez entzun ebena.

Lotiro bide egin eban etxerantza, noizik-bein atzera begiraturik, aita ondorik ez etorkon jakin naiean.

Lurrera zan azkenez. Txabolara joanak ziran ama ta aitaita; negar egiten an atsekabez josita, zelaian irauka.

Atara eban Ibik'ek, alak eginda, uretatik bere *kajak* astuna, ta berealak txabola barruan egonanakana zazendu zan.

Arrezkean bide bat geratzen zan bakarrik: otoitza.

Ez eutsen ezer esan; eurak be bazekien zer jazo zan, obeto eziñean ikusi eben, ba, aitari gertaniko guztia. Ez, ezin ezer barririk geitu.

Danak batera negarrez, otoitz erdi ebagiak marmarka zoan. Jaungoikoagana juan ebezan biotzak, errukitasuna ta pozkiro batzuen eske.

O.

# ARTZAIN GAZTEA

Artzain gaztea
zauri gorritan,
iaka biziten
daukagu.
Esnizu, arren:
txoriak kantuz...
errekak saltuz...
zer dozu?
Uda eltzean
oro kantari;
artzaiña zela
negarrez?
Miñez josita
muiño ertzean,
arrizu-gean
zutiñez?
Maitasunaren
dardai zuria
—ene bizia!—
barrean,
abene baten
orra nun dogun,
gau eta egun
guztian.
Lizarrak sakon
intziraz dira:
ustoz aizeu,
arobat:
artzaiña ikusiz
negar-jario,
ai-otsak eio
zeentzat.
Ixillik, arren!
txori ta muiño,
bedar ta pago:
ixillik.
Artzain gaztea
orrela ikusiz,
maitasun-dardaiz
mindurik...

—O.